# [Gasteiz] A raiz del juicio contra la casa Errekaleor 26

ERREKALEOR BIZIRIK! :: 22/10/2014

Quien debiera sentarse en el banquillo de acusados es la gestora municipal Ensanche 21, por haber echado a los vecinos de Errekaleor en favor de intereses especulativos.

**[Euskara]**

**Errekaleor 26 etxearen kontrako epaiketaren harira**

Urte bete baino gehiago da, Errekaleor 26 etxeko ateari hostikada eman eta Gasteizko auzo honetara bizitzera etorri ginela. Ez genion erronka makala jarri gure buruari, Gasteizko udalak hilzorian utzitako auzoa biziberritu eta gure bizitzaren kontrola berreskuratzea .
Harrezkero, hamarnaka eta hamarnaka pertsona lotu gatzaizkio Errekaleor Bizirik!
,proiektuari.
Tapioak apurtuta ireki dizkiogu lehioak Errekaleor berriari.

Udalak ordea, lehen bait lehen itxi nahi digu auzoko atea, makinak sartzeko, iraganean estaltzeko.
Errekaleor 26 etxe okupatua husteko Ensanche 21ek jarritako salaketaren ondorioz habiatu den prozesu judizialaren lehen bista izan dugu gaur (2014ko Urriaren 21ean). Hau salatzeko $$. Pertsonek kontzentrazioa burutu dugu epaitegien aurrean “EPAITU DEZATELA ENSANCHE 21, ERREKALEOR BIZIRIK” leloaren atzean.

Egiten dugun irakurketa honakoa da:

Errekaleor 26 etxearen kontrako prozesua Errekaleor Bizirik! proiektu osoaren kontrako epaiketa da.
Alde batetik, ekimena martxan jarri zuen etxea hustu nahi dute, bestalde, aurrekari modura erabiliko dute erabakia okupatuta dauden gainontzeko espazioen kontra egiteko.

Ensanche 21 udal gestora eseri beharko litzateke akusatuen tokian, interes espekulatiboen mesedetan Errekaleorreko betiko bizilagunak kanporatzeagatik. Gainera, irregulartasun ekonomiko eta juridiko ugari ditu. Auzoa udalaren baimenik gabe biziberritzea delitua da, diru publikoa interes ekonomiko pribatuen mesdetan erabiltzea ez, ordea.

Horretarako, dei egiten diogu jendeari Errekaleorrera hurbildu eta auzoko ekimenetan parte har dezan, orain da garaia. Bide horretan, datorren ostiral goizean (Urriaren 31an), Virgen Blancan egingo den kontzentrazioan parte hartzeko deia luzatzen dugu. Egun horretako udalbatzan, gure aurkako salaketa kentzeko eskatzen duen mozioa aurkeztuko baitugu.

Epaiketak epaiketa, Errekaleorren lanean jarraituko dugu, ez dugu auzoa entregatzeko asmorik!

ERREKALEOR BIZIRIK!

---

**[Castellano]**

**A raiz del juicio contra la casa Errekaleor 26**

Hace más de un año ya que abrimos el portal de Errekaleor 26 y vinimos a vivir a este barrio de Vitoria.
Nuestro reto no era sencillo, devolverle la vida a un barrio que el ayuntamiento de Vitoria abandonó moribundo, y recuperar el control sobre nuestras vidas. Desde entonces, hemos sido decenas y decenas las personas que nos hemos unido en el proyecto "Errekaleor Bizirik!". Tirando tapias hemos ido abriendo ventanas en el nuevo Errekaleor.

El ayuntamiento, en cambio, quiere cerrarnos las puertas del barrio lo antes posible, mediante máquinas que lo entierren en el pasado. Hoy, 21 de Octubre de 2014, hemos tenido la primera vista del proceso judicial que se puso en marcha para desalojar la casa Errekaleor 26 tras la denuncia de Ensanche 21.
Para denunciar esto hoy hemos realizado una concentración frente a los juzgados bajo los lemas "Que juzguen a Ensanche 21" y "Errekaleor Bizirik!".

La lectura que realizamos es la siguiente:

El proceso contra Errekaleor 26 es un juicio contra todo el proyecto "Errekaleor Bizirik!". Por un lado, quieren desalojar la casa que comenzó el proyecto, y por otro, utilizarán la sentencia como precedente para desalojar los demás espacios ocupados en el barrio.

Quien debiera sentarse en el banquillo de los acusados es la gestora municipal Ensanche 21, por haber echado a los vecinos de toda la vida de Errekaleor en favor de unos intereses especulativos. Además, tiene numerosas irregularidades jurídicas y económicas. Devolverle la vida al barrio sin el permiso del ayuntamiento es un delito, mientras que utilizar el dinero público en favor de intereses privados, en cambio, no.

Por ello, hacemos un llamamiento a la gente a acercarse a conocer Errekaleor y a participar en las diferentes actividades del barrio, ahora es el momento. De la misma manera, hacemos un llamamiento a participar en la concentración que se convocará el próximo viernes, 31 de Octubre, en la Virgen Blanca, día en el que presentaremos a la Junta Municipal una moción para retirar la denuncia que hay contra nosotros.

A pesar de los juicios, en Errekaleor seguiremos trabajando, no tenemos ninguna intención de entregar el barrio!

ERREKALEOR BIZIRIK!

_https://eh.lahaine.org/gasteiz-a-raiz-del-juicio_